

PRENTSA IRITZI ARTIKULUA

HAUR ETXEAK versus HAUR ESKOLAK

LOGSE legeak, 1990. urtean argitaratu zenean, izaera hezigarria eman zion 0-6 urtera bitarteko zikloari, alegia, etapa hezitzaile bezala definitu zuen. Honek bi ondorio ekarri zituen: ikastetxeetan 2 urteko gelak orokortzea, eta 0-3 urtera bitarteko zikloaren planifikazioarekin hastea, haur hezkuntzako etapa honetan zegoen gizarte eskaintzari erantzuna emanez.

Ziklo hezitzaile garrantzitsua den heinean, Hezkuntza Sailak haur eskola hauen sorrera bere gain hartzea zuzenena eta logikoena zen, baina formula nahasi baten aldeko apustua egin zen, Hezkuntza Saila eta Udalen artean, Haurreskolak Partzuergoa sortuz. Modu honetan, 2003. urtean lehenengo 30 haur eskola jarri ziren abian.

Familien laguntzarako Instituzioen arteko Planak eskaintzaren %40a 2011 urterako bermatzea planteatzen zuen. Hau, egun, oraindik lortu ez den gauza da (%4,5 behetik), baina familien eskariei erantzuna emateko, haur-eskoletako plazak handitu beharrean, Gemma Zabaletak, Lan eta Ongizate Saileko arduradunak, gizarte osoari ezusteko ederra ematen digu (Hezkuntza Sailari eta Haurreskolak Partzuergoari barne) "Haur-etxeak" proiektuaren sorrerarekin, eta dagoeneko martxan dagoen haur-eskolak proiektua bigarren planoan jarritz.

Proiektu hau iparraldeko herrialdeetan orain dela 35 urte martxan jarri zela argudiatzen dute (herrialde hauetatik datorren guztia ondo omen dagoela dirudi beti). Beharbada, hemengo ibilbidea orain dela 35 urte hasi bazen, txalotuko genuke, baina egungo errealitatea guztiz kontrakoa da: haur-eskolak ia 10 urte daramatza martxan eta zerbitzu honetan, profesionalak diren hezitzaileak lan egiten dute, gutxieneko 2000 orduko hasierako formazioa dutenak (haur hezkuntzako teknikaria), edo are gehiago haur hezkuntzako maisu-maistrak baldin badira. Haur-etxeen langileen formazioa, ordea, 4 hilabetetan jaso duten 250 ordukoa da, eta "habia" hauen arduradunek, guztiak emakumeak, 4 haur zainduko dituzte ondoko baldintzak bildu behar dituen pisu batean: pertsona bakoitzeko 8 m² izatea (langilea barne), txizatokiak egotea, entxufeak babestuta izatea eta tximinia edo gas berogailuak ez izatea. Begiratzea besterik ez dago haur-eskolek bete behar duten baldintza eta araudiak, konparazioak ateratzeko.

Ekimen honek aurrez-aurre talka egiten du legeak orain urte batzuk ezarritako 0-6 urtera bitarteko ziklo hezitzaile honen ikuspuntuarekin. Haur hezkuntzako lehen ziklo honek umeen mugimenduaren garapena, gorputz oreka, komunikatzeko eta hizkuntzako lehen urratsak, balioak, jarrerak, bizikidetzaren sustatzeko trebetasunak e.a. landu behar ditu.

Zentzugabekeria honen aurrean STEE-EILAS Sindikatuak salatu nahi du haur-etxe hauek haurtzaroan eskaini behar den kalitatezko hezkuntzatik oso urrun dagoen eredu zaharkitua dela, haurren zaintzaz arduratuko diren profesionalen kalifikazioari, instalazio baldintzei eta, jakina, langile hauen lan baldintzei dagokienean.

Proposatu duten zerbitzu honek gizon eta emakumeen artean zaintza lanak era orekatuan banatzeko bidea zabaldu eta zerbitzu publikoa bultzatu beharrean, arlo pribatura zuzentzen du haurren arreta, amaren papera, berriro indartuz.

Gemma Zabaletak haur eskoletan 2000 plaza libre daudela esaten duenean, "egia" denarekin tranpa egiten du, ez baitu aipatzen zenbat eskari gelditzen diren onartu gabe. Egia da, herrietan eta zonalde batzuetan plaza libre daudela, baina aldi berean, hutsune larriak daude Bilbo eta Gasteiz hiriguneetan, non plaza bakar bat ere ez da eskaini hainbat auzuneetan (Santutxu, Rekalde, Alde zaharra...). Isiltzen du ere plaza horien prezio garestia.

Nola da posible haur etxe hauek arlo pedagogikoa bermatzea? Nola egongo dira haurrak 8 orduz pisu horretatik irten gabe? Zer gertatuko da langileari zerbait gertatuz gero, nor arduratuko da haur horietaz? Non dago edo nork ezagutzen du hain "berritzailea" den ekimen honen funtzionamendu araudia eta plangintza pedagogikoa?

Etapak hau asistentziala izateaz gain, hezitzailea ere badela urteak darama aldarrikatzen gure sindikatuak, eta "Haur etxeak" izeneko proiektu honek alor asistentziala hori baino ezingo du, gehienez ere, bermatu.

2011ko azaroaren 14